



# «OSO GUSTURA» HERRIAREN ERANTZUNAREKIN

Anoetako I. Euskal Jairen arduradunek balantze «oso positiboa» egin dute eta guztiei «eskerrak» eman dizkiete »2

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea  
2008-10-21**

VIURTEA 1.539.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Bulebarrean egin zuten Alegiko azoka, lanak direla eta; Zizurkilen 50 postu jarri zituzten. P. RENOBALES / IDOIA LAHALDALGA

## EGUZKIA LAGUN AZOKA ARRAKASTATSUAK ZIZURKIL ETA ALEGIAN

**TOLOSALDEA** Zizurkilgo XI. Azoka Berezian Andrezketa baserriak eraman zuen saria; Alegian ere jende ugari ibili zen, eguraldia lagun 4-5

## 150 lanpostu izango dira Gureak taldeko pabilioi berrian

**TOLOSALDEA** Atzo inauguratu zuten 4.000 metro koadroko lantegia Apattaerrekan »



Etخانiz, Olano, Romeo eta Bildarratz, besteak beste, inaugurazioan. E. EZEIZA

## Larunbateko manifestazioko gertaerak salatu dituzte

**TOLOSA** «Armen, atxiloketen eta jazarpeneren bidez gure historia isiltzerik ez dute», esan dute »

**Aurreikuspenen aurka Olazabalek irabazi dio Bengoetxeari**

**LEITZALDEA** Atzo jokatu zuten Lau t'erdikoaren final-hamaseirenak Beotibarren 7

**Bide Bide Ibizak garaipenaren bidari jarraitu dio Durangon ere irabaziz**

**TOLOSA** Datorren larunbatean bigarren sailkatuaren aurka ariko da 5

# «Herriak ezin hobeto erantzundu» I. Euskal Jaia biribila izateko

**Anoeta** » Udalak, Gazte Asanbladako kideek eta hainbat herritarrek balantze «oso baikorra» egin zuten pasa den astean.

## ERREDAKZIOA

Pasa den astean I. Euskal Jaieren inguruko balantzea egiteko bildu ziren Gazte Asanbladako kideak, Udaleko ordezkariak eta norbakoak (txekorra erretzen aritu zirenak, talogileak, musikariak, azokako nekazariak,...). Orokorrean, guztien balantzea «oso positiboa» izan da. Gorka Otxoa-Aizpuruak azpimarratu duenez, «jendearen aldetik erantzuna oso zabala izan zen eta, beraz, pozik egoteko arrazoiak baditugu».

Euskal Jaia baserritarrei babesa eman eta nortasuna adierazi alde-ara antolatu zuten Anoetan. Eta baserritar hauek oro har «oso gustura» geratu ziren emaitzarekin. Hala ere, Otxoa-Aizpuruak azaldu bezala, «parte hartu zutenei inkesta moduko bat pasa diegu, euren iritzia biltzeko, eta oraindik ez ditugu emaitzak jaso».

Espero baino jende gehiagok, antolatzaileen deialdiari erantzunez, artzai-andre jantziak soinean zizutuzela hartu zuten parte festan.

## Lanean aritu zirenei eskerrak

Jai eguna antolatu ahal izateko, jende ugari egin zuen lana Anoetan. Horiei guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete bai eta euren lana azpimarratu ere: «Txekorra erretzen aritu zirenak gau osoan, postuetan izan zirenak, jai giroa alaitzen aritu ziren musikariak,...

Guztien lana izan da eskertzekoa». Zerbait txarra zenbatzekotan, haizearen eraginez espero baino hiru postu gutxiago jarri izana aipatu dute arduradunek. Hala ere, azokan jende ugari ibili zen eta nekazari eta artisauak gustura zeuden. Herri bazkaria ere «izugarri ondo» atera zen, 280 lagunetik gora parte hartu zutelarik. Ondorengo kantaldian ere jai giroa nagusitu zen. Perurenatarren emanaldiak jende ugari erakarri zuen, «baita herritik kanpoko ere». Umeentzat txokoa ere izan zen.

Halaber, Loatzo musika eskolako gazteentzat esker oneko hitzak izan dituzte, «eginiko lanarengatik».

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, «pozgarria da ikustea herria nola mugitzen den horrelako gauzak antolatzerakoan». Hala, saltzaile nahiz erosle, antolatzaile nahiz parte-hartzaileen erantzuna ikusita, datorren urtean ere eutsiko diote jai antolatzeari.



Ekitaldiz beteriko eguna izan zen eta guztiak ere arrakastatsuak: herri bazkaria, azoka, perratzaileak, harri-jasotze erakustaldia, talogileak eta dantza emanaldiak. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# 150 lagunek egingo dute lan Gureak Taldearen pabilioi berrian

**Ekonomia** » Atzo goizean inauguratu zuten Apattaerrekan kokatua dagoen 4.000 metro koadroko eraikina.

## ESTI EZEIZA

Atzo inauguratu zuten Gureak taldearen pabilioi berria. 4.000 metro koadro ditu, eta Ibarrao Apa-ttaerreaka industrigunean kokatua dago. Bertan 150 langilek egingo dute lan.

1977. urtean sortu zen Gureak enpresa. Orduan, Tolosako Abas-tos plazan kokatu zen, eta 13 langileekin hasi zen. Garai haietatik hona, hainbat toki aldaketa egin dituzte, beti, Udalak utzitako eraikinetan kokatuz. Orain, «independizatzea» eta eraikin propio bat egitea erabaki dute.

Atzo inauguratutako pabilioi berria, Gureak Taldea bere instalakuntzak hobetzeko egiten ari den apustuaren isla da. Halaber, honen helburua da bailarako pertsonen beharrei eta datoen urteetan Gureak Taldeko enpresetan sortuko diren erantzuna ematea.

Pabilioi berri honek orain arte San Esteban auzoan zegoen lantegi zaharra ordezkatuko du. Eraikina eta bere egokitzeak bost milioi euroko inbertsioa suposatzen du eta proiektuaren zati batek Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Espainiako Lan Zerbitzu Publikoaren (INEM) eta ONCE erakundearen laguntza jasotzen du.

## Inaugurazio ekitaldia

Atzo goizean, ehunka lagunek hartu zuten parte pabilioi berriaren inaugurazio ekitaldian. Bertan izan ziren, besteak beste, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia den Markel Olano; Maite Etxaniz Gizarte Politikako Foru Diputatuak; Jokin Beldarratz, Tolosako alkatea; Txelo Romeo, Ibarrao alkatea; INEMeko Gipuzkoako zuzendaria den Pedro Ustarroz eta Iñaki Alkorta, Gureak taldeko lehendakari eta zuzendariak.

Ekitaldiari hasiera emateko, pabilioiaren kanpoaldean, neskato batek aureskua dantzatu zieten agintariari, eta ondoren, zinta mozketa ekin zioten. Jarraian, barneraldera bideratu ziren han biltutako guztiak, eta agintariak, banan banan, Gureak eta INEMeko ordezkariekin batera, hitza hartu zuten. Denek ere eskerrak eman zizkieten bertan zeuden Gureak-eko langileei, proiektua aurrera eramaten laguntzeagatik, eta albiste pozgarritzat jo zuten lantegiaren irekiera. Jarraian, instalakuntzak ikusteko aukera izan zen.

Atzoko ekitaldian Iñaki Alkortak agertu zuenez, «inauguratzeko ari garen pabilioia, gaur egungo



Ekitaldiaren baitan, Iñaki Alkorta, Gureak taldeko lehendakari eta zuzendariak hitz batzuk egin zituen. E. EZEIZA



Hasiera emateko, aureskua dantzatu zieten agintariari. E. EZEIZA

Gureak taldearen isla da. Ezin duak gizarteratzeko lan handia egiten ari gara Gureak-en, baina horretaz gain, erakutsi dugu enpresa lehiakor bat izatea lortu dugula», gaineratu zuen Gureak taldeko lehendakari eta zuzendariak. Luzatutako datuen arabera, Taldeak 4.000 pertsonari lana ematen die gaur egun eta gehienak ezintasun bat duten pertsonak dira. Hala, eraikin berri honekin dagoeneko 40 dira Gureak Taldeak Gipuzkoan dituen lan zentroak.

## Eraikineren ezaugarriak

Gureak taldeko pabilioi berriak 4.000 metro koadro ditu eta hiru solairutan banatuta dago. Kalera jotzen duen solairuan lan zentro berezia dago kokatuta eta bertan 120 pertsonak egingo dute lan. Hauetako gehienek ezgaitasunen bat dute.

Lantegi hau Taldearen automotzio unitatearen baitan dago eta bere jarduerara nagusienetako bat argiztapen eta seinalizazio sistemak egitean datza. Horrez gain,

barneko osagaiak, ibilgailu industrialeko modulu ezberdinak, sektore eolikorako osagaiak eta azpikontratazio industrialerako muntai mekaniko eta elektrikoak egiten dituzte.

Lehenengo solairuan, alde batetik, bulegoak, hainbat bilera gela, Zabala programaren garapenerako areto balioanizta eta Goroldiren biltegia daude. Bulegoekin batera, Azken honek, laster kokatuko du

## » JADUERA NAGUSIAK

- Automotziorako argiztatze eta seinalizazio sistemak.
- Auto eta motorrentzat barne osagaiak.
- Industri ibilgailuentzat modulu ezberdinak.
- Sektore eolikoarentzat osagaiak.
- Sektore eolikoarentzat osagaiak.
- Azpikontratazio industrialak: muntai mekaniko eta elektrikoak.
- **Langile kopurua.** 150 pertsona (%90a ezintasunen bat duten pertsonak).
- **Bezero nagusiak.** Valeo, Iluminacion, TRW, Hella eta Gamesa.
- **Urteko fakturazioa.** 3,4 milioi euro.

bere Tolosaldeko egoitza eraikin berri honetan. Azkenik, solairu honetan langileentzako jangela eta aldagelak daude kokatuta.

Bigarren solairuak 500 metro koadro ditu eta alboan, gainera, honez gain, ia 2.000 metro koadroko partzela du. Une honetan ez dira erabiltzen, baina eremu hori bezero nagusienekin aztertzen ari diren proiektu enpresarial berriak ezartzeko erabiliko dute.



Larrun ezagutzeko aukera. HITZA

## Alpino Uzturrek Iparraldera txangoa antolatu du asteburu honetarako

### ERREDAKZIOA

Alpino Uzturre mendi elkarteak hilaren 26rako 7 orduko mendi irteera antolatu du. Txangoa Saran hasiko da, eta Zugarramurdin bukatu. Larrun (900 m.), Ibantelli (698 m.) eta Atxuria (756 m.) mendiak igoko dituzte. Autobusaren irteera 07:00etan izango da Rondilla kaletik. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek 13 euro. Izen-ematea elkartearen bertan egin daiteke edo, 943 652 789 telefono zenbakira deituta. Honetaz gain, [alpinozturre@hotmail.com](mailto:alpinozturre@hotmail.com) posta elektronikoan ere egin ahal izango da.

## Liburutegiaren Egurenaren harira, zenbait ekintza izango dira liburutegietan

### ERREDAKZIOA

Liburutegiaren Nazioarteko Eguna ospatzen da ostiral honetan. Hori dela eta, aste guztian zehar hainbat ekintza burutuko dituzte Udal liburutegian eta Haur Liburutegian. Besteak beste, kamiseta eta liburuak zozketatuko dituzte, liburuak mailegian hartzen dituztenen artean. Irabazleei telefonoz dituko diete 27tik aurrera.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Pausoka Akademia

**ERREFORTZU KLASEAK:**  
(materia guztiak)


Lehen hezkuntza, D.B.H. eta Batxilergoa

**HIZKUNTZAK:**

Ingelera, Frantsesa, Italiara, Arabiera, Euskara eta Gaztelera atzerriarrentzat

**TALDEKAKO ETA BANAKAKO KLASEAK**  
ANIMA ZAITEZ,  
IRAKASLE EZIN HOBEAK DITUGU!

Martin Jose Iraola, 2 behea • TOLOSA  
mug.: 686971962 • Tel.: 943 67 24 48



Alegian barazki eta animalia azoka izan zen eta Zizurkilen, bertan, artisautez eta jangaiena. Bietara ere jende asko hurbildu zen. F. RINOWALES, ODOALAN/AGALDIA

# Alegiako eta Zizurkilgo azoka arrakastatsuei, eguzkia gehitu behar

**Ekonomia** » Alegian II. Barazki eta Animalia Azoka antolatatu zuten herenegun Bulebarrean eta Zizurkilen XI. aldiz, Azoka Berezia izan zuten.

### HERNANDEZ

Eguraldi epelaz gozatu ahal izan zen herenegun Tolosaldean. Zizurkilen eta Alegian azokak antolatatu zituzten, eta berez erakargarriak baziren, azokagilegozkinekin. Zizurkilen XI. Azoka Berezia izan zuten, eta Alegian, II. Barazki eta Animalia Azoka. Bietan ere, beraz, kalitatezko produktua ikus eta erosu zitezkeen.

«Eguzkia gehitu behar da, ez da hain onak. Berez, datorren urtean zer egongo duten esatea goiz bada ere, egongo dela zutemena da. Ez da faltatu DBHkoen lan eta eskaintza azokaz pintxoak, postre eta hainbat produktu. Kurso bularren egingo duten bidaiareren parte bat ordaintzeko. «Dena saldu da zuten eguerdirako». Hala gertatu zen beste gozo postu batzuetan ere: LIZOteariko sagaruta zuden.

Herriar batok, igandea barazkiak saltzeko egunik onena ez dela zioen, «egunpassa doalako, erosteko samonik gabe»-do. Kurtsuak baina barazkiak ez, Gainera, Alegian jende askok barazta dauka, erosten beharrik ez, beraz.

**Alegian izan baino hegazti gehiago izan da ikusgai, baina bestelako animalia gutxiago izan da**

**Hasiara batean 52 izan behar baziren ere, Zizurkilen azkenean 50 postu ezberdin izan ziren**

**Berrietasunak, bitxiak**  
Iaz bi postu izan ziren sagardarekin, eta aurten ere izan dira, baina bitxiak batek, sagardoa onagaitzen den erakutsi zuten, irudien bitartez eta bertara tresnaren bat ere eraman. Horregatik, bertaratzen zenak sagar zaku fresko-freskoa har eta dasta zezakelen.

«Lehen urtean 52 izan behar baziren ere, Zizurkilen azkenean 50 postu ezberdin izan ziren»  
«Lehen urtean 52 izan behar baziren ere, Zizurkilen azkenean 50 postu ezberdin izan ziren»  
«Lehen urtean 52 izan behar baziren ere, Zizurkilen azkenean 50 postu ezberdin izan ziren»

**Zizurkilen ere, giro aparta**  
Zizurkilen herenegungo azoka hainakagarrena izan zen. Ainhoa Larrea Zizurkilgo Kultur Zinegotzaren bidaiareren postuak izan da. Guztira 50 postu izan ziren, herriarrek eta kanpotarrek osatuta. «Hasiara batean 52 izan behar baziren ere, Zizurkilen azkenean 50 postu ezberdin izan ziren»  
«Lehen urtean 52 izan behar baziren ere, Zizurkilen azkenean 50 postu ezberdin izan ziren»

Dudarik gabe, azoka hau herriaren parte hartzearekin izan da posible beste behin eta Alegiako Kultur Batzordeko kideek oso konpain hartzen dute hainbat. «Ezkerrik berronak eman nahi ditugu parte hartu duten guztiak, eta nola ez, datorren urtean ere parte hart dezalako».

**2 sarrera pare** zozketan, deitu eta eskuratu  
"Evolution & Love" ikuskizuna

Urriak 24, ostirala 20:30etan Tolosako Leidorren

HITZAren harpideduntzat abantailak

Tolosako gozogleiek emango dituzte  
**2 tarta** zozketan, deitu eta eskuratu


Urriak 25, larunbata Tolosa Goxua azokaren baitan

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 96 95

**3 harpidetza** zozketan, deitu eta eskuratu

**aldizkaria**

Urriak 23 bitarte deitzen duzuen artean



Alegian animalien artean potokoa pare bat eta zaldi bat izan ziren: aurten izan baino hegazti gehiago izan dira. F. R.

# Erraz gailendu da Laskorain Ortziri taldearen aurka

**Tolosa** » Aretto-futbolko taldea etxean irabazi zuen 7-2ko emaitzarekin; seigarren dira sailkapen orokorrean, 7 puntuekin.

Itxearren, Murgien eta Tellerreren hanketatik. Ezbaierik gabe, maila handiko jokalariek sirtu zituzten Hiru jokalariek. Amsterdako eta 2ko azken minutuan sartu zuten bizkaitarrek.

### EREDAKZIOA

Erraz nagusitu ziren Laskorain arto-futbol taldeko jokalariek Ortziri talde bizkaitararen aurka, 7-2ko emaitzarekin irabazi zuten. Talde bizkaitarra arazo dezente izaten ari da denboraldi hasiera honetan eta, beraz, ez zen zaila suertatu haien aurka irabaztea. Horroxon gainera partida lasaia izateko on eguzia.

Esan bezala Tolosaren artean zuzpi golek izan ziren gol bakoarekin, aipagarria benetan, eta berean artean bat aipagarri izateko Murgienaren gertatu ziren taldeko arduradunek. Partida aparta birbildu izan honek eta «bere jokoen hazitza ari delako» frogatu zuen bere zaketan aurrean.

Gola sartu ez zutenen artean ere izan zen protagonista. Izan ere, azken jardunaldian baino minutu gehiago gozatu zuen Amatriainek ere -partida bikaina burutu zuen, joko dinamiko erakutsiz aginte dohaiaren bitartez taldea kokatzeko orduan».

Partida hasiera Durangoen aldekoa izan zen, baina ez zuten gertatu jokalariek. Tolosa mar kagailuan aurra hartzea lortu zuten bigarren laurdenaren hasieran (26-29). Hain ikusitako, etxekoak berriro gogoratu eta atsedena diru aurretik heldu ziren (35-32). Hirugarren laurdenak erabaki zuen partida 13 puntuko alde ateratzen Tolosako talde aurrerari. Azken laurdenaren etxekoak bertan gertatu ziren baina ez zen nahikoa izan.

Bigarren zatian ere nagusi Bigarren erdian Otxoa ibartarra izan zen Laskorainen lagarrena sare eta zuma Ortziriaren lehenengoaren aurretik. Bistarien gaitare ondoan jokatu zituzten lastolakoak, baina zuten minuturik onenak, jokalariek bertan zintzelarik. Ondorioz, gola bakabestearen jaraman heldu ziren, 7-

**Datorren astean, Usabal**  
Datorren larunbatan sailkapeneko bigarren postuan dagoen UPV Alava talde gasteiztararen aurka arituko dira Usabal, 18:00etan. Denboraldiko lagarren garapena izango litzateke, lasaitasun ederraman jokoen talkeari.



Sagarra noa egiten den azaldu zuten Alegian, tresnak ere erakutsi. F. R.

Zizurkilen behintzat, aurreneko aldez irabazi dux.  
Azoka bi gunetan zegoen banatuta: jangaiena zen bat eta beste artisautearen. Bietan ere jende asko ibili zen.  
Tartean, Zizurkilen Barrena beregun oniarrik eman zituzten eguztiera beste behin. Aurteko giza Zizurkilgo eskara bitzeko boka izango da, eta etzi arte dago proiektua aurkezteko aukera.  
Bukarazko, trakturren erakusketen emandako izan zen. «Gehienak artzain alemaniarrik ziren, eta bertan ere jende asko bildu zen». Hain izan zen azoka bereriko azken ekitaldia. Tartean eta egun osoan zehar haurrenzako jokak ere izan ziren, eta hurbildu ziren bertaratzailek, noski.

Tolosako Udala  
Udala

**Basatia**

**Urriak 25**

**PANPINAK**

DVD berria etxeko txikiak jolasteko

DVDa (postuarekin) 18€

Panpina bakoitza 20€

hitza





Jende asko gerturatu zen igandean Tolosako Triangulo plazara aurreko eguneko manifestazioan gertatutakoa salatzeko. R.CALVO

## «Armen, atxiloketen eta jazarpenen bidez ez dute gure historia isiltzerik»

**Tolosa** » Lasa eta Zabalaren omenezko manifestazioko gertaerak salatu zituzten herenegun eginko prentsaurrekoan.

REBEKA CALVO

«Benetako lotsa sentitu genuen atzo -larunbatarengatik- hemen bertan. Lasa eta Zabala oroitzera hurbildu ginen ehundaka herritarren aurka egin zuen Ertzaintzak, jendea gorrotoz jo zutela ikusi genuen, gogotsu egiten zutela tiro. 6 lagun atxilotu zituzten, tartean Lasa eta Zabalaren senideak», argitu zuen atxilotuetako batek, Mikel Zabalak, hain justu Joxi Zabalaren lehengusua denak.

Izan ere, pasa den igandean honetan deitu zuten prentsaurrekora Triangulon aurreko eguneko ma-

nifestazioan jazotakoak salatzen.

Larunbatean Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deitutako manifestazioan, Espainiako Auzentzia Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak debekatu zuenean, hain zuzen, sei pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak eta pertsona bat baino gehiagok, gainera, ospitalera joan behar izan zen jasotako golpeen ondorioz.

### Urteroko hitzordua

Horiek horrela, Zabalak GALEk bi tolosar gazteak bahitu eta erail zituenetik «urtero urtero gogora» ekarri dituztela gogoratu zuen.

«Aurtengorako ere asmo berdinak genituen, baina azken orduan deituta genuen manifestazioa debekatu zuen Garzon epaileak eta Ertzaintza izan zen debekua gautzatzeaz arduratu zena», gaineratu

zuen zentzu honetan Joxi Zabalaren lehengusua.

Era berean, «EAJren aginduz ertzainek jo eta atxilotu» zituztenean ere «lotsa» sentitu zutela eta orain 11 urte Tolosako gazteen gorpua herriko hilerria ekartzekoan gertatutakoak ekarri zizkietela gogora esan zuen.

### «Akdordio errepresioa»

«Gure aldetik argi dugu Ertzaintzaren oldarraldi hauek ez direla salbuespenekoak. Ez zen salbuespeneko jardunbidea izan Tolosako hilerrian egin zutena. Ez da salbuespeneko jardunbidea izan larunbatean Tolosan egin zutena. EAJren erabaki politikoz aritu ziren ertzainak batean eta bestean. EAJk PSO Eren duen akordio errepresiboaren ondorioak dira bata zein bestea», argitu zuen.

Mikel Zabalak Espainiako Au-

rrekontuetarako EAJk eta PSOEk lortutako akordioa ere ekarri zuen gogora: «Herri honetan milaka eta milaka lagun inolako eskubiderik gabe utzi ditu PSO Eren gobernuak. Oinarriko eskubide demokratikoak ukatuak ditugu eta EAJ arduratzen da ukazio honen gauzapen praktikoa egiten. Aurrekontuetarako akordioa egin du EAJk PSO Erenkin. Baina gure aldetik argi dugu herri honetako sektore batekin amaitzeko benetako akordio errepresioa egina dutela Urkulluk eta Zapterok. GAL euskal herritarrek bahitu, torturatu eta hiltzen ari zenean EAJ eta PSOE akordiotan zebiltzan. Gaur, GALEk hil zituen herritarrek oroi nahi ditugunean ere berdin dabilta», gaineratu zuen.

Larunbateko gertakariak ikusita bertaritutakoek «armen, atxiloketen eta jazarpenen bidez» ez dela posible «herri honen historia isiltzerik» esan nahi izan zuten. «Ez dute lortuko Lasa eta Zabalaren oroimena ezabatzerik. Ez dute lortuko errepresioak hil dituen herritarren izenak itzaltzerik», argitu zuten.

Zabalak herri honek «benetako konponbidea» behar duela azpimarratu zuen eta «konponbide horretatik urrunduta baino ez gaituzte egiten larunbateko bezalako erasoek. Gure aldetik errepresioak hildakoak oroitzen jarrituko dugu, errepresaliatuei elkartasuna eskaintzen jarraituko dugu, eta benetako konponbide baten alde lanetan jarraituko dugu», esan zuen.

## 5-4 irabazi zuen Ibarra FSk Candesa Camargoren aurka

**Ibarra** » Nahiz eta baja ugariarekin jolastu denboraldiko lehen garaipena lortu zuten Ibarraoek etxean.

### ERREDAKZIOA

Ibarrao areto-futboleko Lauburu K.E. taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen larunbatean etxean, Belabietan kiroldegian, Candesa Camargoren aurka jokatutako partidari. 5-4 emaitza lortu zuten Kantabriakoek aurka. Baja ugari zituen talde ibartarrak; Unai Labakarena, Cristian Davilarena, Igor Zabalarena eta Aritz Otaegirena, hain zuzen.

Partidako lehen bi golak Kantabriako taldeak egin zituen, baina ondoren Txubel entrenatzaileak Ibarraoek teknika aldatu zuen eta poliki izan bazen ere azkenean lortu zuten garaipena.

Joseba Balardi, Jon Garmendia, Ion Ander Karrera, David Prados eta Aitzol Oyarbide izan ziren zelairaratu ziren lehenengo bostak, nahiz eta golak Loitzun Sanzenak, Victor Silvarenak eta Ruben Etxartenak izan ziren.

## L Laburrak

### Josetxo Jauregi omenaldia, gaur

**IBARRA** » Josetxo Jauregiaren erailketaren XXVII. urteurrena betetzen da gaur; hori dela-eta omenaldi xumea egingo diote bere jaioterrian, Ibarra. 19:00etan lore eskaintza izango da hilerrian eta 19:30ean, aldis, omenaldia egingo diote Aranen. Gogoratu behar da Josetxo Jauregi ibartarra 1981. urtean erail zuela Guardia Zibilak Pasaian, Andres Izagirre Gogorza, Gogor, etakidearekin zihola errepide kontrol batean. Josetxo Jauregi 23 urte betetzear zegoen.

### Osasunaren inguruko hitzaldiak Kultur Etxean

**BELAUNTZA** » Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutxako ikasgelak sustatutako osasunaren inguruko jardunaldiak hurrengo saioak Belauntzan izango dira gaur eta ostegunean. Gaurkoan *Pentsa dezagun oinek* eskainiko dute Kultur Etxean 17:00etan eta bertan bidaiek eta oporek osasunerako dakarten onurari buruz hitz egingo dute. Ostegunean, leku eta ordu berean, *Etxeko arriskuak eta lehen laguntzak* izango da. Honakoan etxeko arriskuen aurrean hartu beharreko prebentzio-neurrien berri emango dute, besteak beste.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin, umeak zaindu edota edadeko jendea zaintzeko esperientziadun pertsona eskaintzen da. 695 715 373.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai ikaztegietan. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailua eta bi balkoi eder ditu. Deitu iluntzeetan 628

698 807 edo 666 615 766.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Deitu 657 230 011 edo 634 919 482 telefono zenbakietara.

### ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Emakume batek pisua alokairuan hartuko luke. 2 edo 3 logela eta balkoiarekin Tolosaldean. 658 731 886.

### @ Azken istiluak Tolosan.

LOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean pasa berri den asteburu honetan Joxean Lasa eta Joxi Zabala bahitu eta hil zituzteneko 25. urteurrenaren harira egindako manifestaldian izandako istiluak jasotzen dituen bideoak aurkituko dituzue. Bideoekin batera irakurleen iritziaz ere aurkituko dituzue bertan, eta noski zeuenak argitaratzeko modua ere baduzue. Era berean, eskualdeko azken berriak, iritzi desberdinak, inkestak eta bestelakoak aurkituko dituzue webgunean:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



Tolosako Beotibar pilotalekua pilotazalez beterik aurkeztu zen atzokoan, ezusteko handi bat ikusteko aukera izan zuten hauek. A. IMAZ

## Mikel Olazabalek 22-16 irabazi dio Oinatz Bengoetxeari Lau t'erdiko final-hamaseirenetan ezustekoa emanaz

**Pilota** » Buruz buruko txapelak, Bengoetxea VI.a, txapelketatik kanpo utzi zuen atzo Mikel Olazabal aresoarrak.

### ASIER IMAZ

Leitzako Aurrera Pilota Eskolako haurrek arratsalde pasa bikaina burutu zuten atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan, nahiz eta herriko pilotariak 22-16 galdu.

### Lau t'erdiko partida

Bengoetxea VI.ak eta Olazabalek Lehen Mailako Lau t'erdiko Txapelketaren final-hamaseirenetako

partida jokatu zuten. Hasieratik amaieraraino aresoarra jaun eta jabe izan zen, nahiz eta nekearen ondorioz Bengoetxea VI.ak berpiztaldiak eskaini. Ezinean ordea; leitzarrak ez zuten bere jokorik aurkitu partida guztian zehar.

7-0 aurreratu zen Olazabal. Ondoren tantu gogor baten ostean, nekea sentitu zuen eta Bengoetxea VI. ak gerturatzera lortu zuen. Baina partidaren bigarren zatian ederki moldatu zen gazteena eta garaipena Aresora eramane zuten.

### Koka final-zortzirenetan

Mikel Olazabalek Koka izango du ariero final-zortzirenetan urriaren 26ean.



Olazabalek nekeari eusten lanak izan zituen atzokoan. A. IMAZ

## Aurrea Beide



### » Herrira begira

**Aimar Sagastibelza**  
Futbol jokalaria

**A**steburuko partidun (urriak 12) puntu bat lortu giñun, partiduko emaitza huts eta hutsekoa izandu baitzen

Partidue ikusita nere uestez bi

puntu galdu giñuzela interpretatu behar giñuke, izan e barkatu ezin dien aukera paregabek euki baigiñuzen irabazteko. Beño beno, etxetik kanpo puntuatzea beti ona omen da, eta golik ez jasotzea ebai, talderi egonkortasune edo indarra ematen baitio honek. Beraz, Ligan erdialden kokatute bagaudere, bide zuzenetik goazen itxure har-tzeiot talden dinamikai, iruipen solle badare.

Ba egoera ikusita edo, entrenadorea pixken bat emozionatu in-tzenez nere pozeako astelehen ta asteartea jai eman zizkiun. Eta noski, hoi jakindakoan aspaldiko

partez Leitzaldea joan nitzen eun pare bat pasatzea. Beti bezelaxe aurkittu nun dena, denboik pasatu izan ez balitz bezela. Eztau esan beharrik bidai hau aprobetxatuz mendire nere eskapatatxo inula uso-ehizea, nere bi kide leialakin; egie esan usota ez giñun gauz haundik in (betiko martxan) beño earki pasa giñun behintzat, nahiko parra inda bueltatu baigiñen etxea. Jakiñe da, uso faltan alternatibak billatu behar.

Normala den bezela, ti-ta batena pasazitzaizkien bi eunek eta Tar-ragona alde bueltatu behar.

Pasatu den hau nobedadeko as-

tea izandu da netzat, izane sekulen praktikatu ez nittun bi kiroletan ibiltzeko aukera eukibaitot: padela eta golfa.

Talde kide batzukin joanitzen eta lehenbiziko aldie izateko pade-len oso ongi moldatu nitzen, edo bestela nere ekipokoak ikeragarri txarrak die (azken hontatik gehio). Kontuk kontu, kirol oso gustagar-rie iruitzen tzait eta laxter berriz ibiltzeko asmotan naiz.

Golfa, berriz, etzait bate gustatu, beño bate-bate! nikuste oso txarra naizelako eta bola juxtu juxtu ikuitzen dotelako izanen dela. Hain da kirol konplikatu eta tekni-koa ze setzun nere onetatik atera ziela. Gañea ikeragarri garestie da, ondorioa: enaiz sekulen gehio ibi-liko.

## Amazabalen Nafar Jokoetako partidak jokatu dituzte Leitzako pilotari gazteek

**Pilota** » Burlata, Errioxa eta Gartzaronen ere txapelketa ezberdinak jokatu zituzten Aurrerako pilotariak.

### A. IMAZ

Burlatako txapelketan, alebin mailan, Igartua eta Zubiriak 12-18 galdu zuten. Errioxako Txapelketan Olan-Apeztegiak 17-18 galdu zuten eta Sagastibelza-Petitek 18-7 irabazi zuten. Gartzaronen berriz, Jaunarena eta Hernandorenak fi-nala galdu zuten (5-18).

Sagastibelzak-Olanok 18-5 irabazi zuten Nafar Jokoetako lehen partida. Ilarregi-Eskuderok 3-18 galdu zuten bigarreana. Alduntzin eta Altzelaik 18-12 irabazi zuten. Gil-Erasok 4-18 galdu zuten. Gartzariarena-Barriolak 15-18 galdu zuten Gil-Mitxaus bikotearen aurka. Zabaleta-Galartza 4ean geratu zi-ren Gil Sagastibelzaren aurka. Igartua eta Saralegik azkenik, 18-13 irabazi zuten.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larriald:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfer:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurrumendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Lizartza.** Herritar talde batek Elkartasun Eguna antolatuko du azaroaren 1erako: 10:00etan dultzaineroak 13:00etan zanpazarrak, 14:00tan txaranga, 14:30ean zikiro jatea ekitaldi desberdinetarako dirua biltzeko (txartelak hilaren 23a baino lehen erosi behar dira 22 eurotan ohiko lekuetan).

■ **Tolosaldea.** EAJ, EA, IU y Aralar alderdiek hilaren 25ean Legutiora *Hitza Hitz* bakea eta erabakitze eskubidearen aldeko kontzentrazio-ara autobusak antolatuko dituzte, Tolosako tren geltokitik 09:00etan abiatuta.

### Zinema

■ **Lekua.** Mugarik Gabe erakundeak antolatutako Zinema eta kooperazio emanaldiak Kultur Etxean egunero 20:00etan.

### Hitzaldia

■ **Belauntza.** *Pentsa dezagun oinek* izeneko hitzaldia Kultur Etxean 17:00etan. Bidaiek eta oporrek osasunerako dakartzaten onurari buruzko informazioa eskainiko da, haietaz segurtasunaz eta atseginez gozatzeko, arriskurik gabe.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 675118.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

**Asteasu** » Goizean zaldi ibilaldia egin zuten eta arratsaldean «lagun arteko lasterketa»; eguna «biribila» izan zen.

### ERREDAKZIOA

Zaldiak eta zaldunak izan ziren protagonista herenegun Asteasu inguruan, egun guztian zehar. Izan ere, goizean, zaldi ibilaldia antolatuko zuten eta arratsaldean, berriz, «lagun arteko» zaldi lasterketa. Antolatzaileak «oso gustura» daude eta balantze «oso positiboa» egin dute.

Eguraldia lagun izan zuten eta horrek «eguna biribila izatea baimendu zuen». Hitzordua 09:00etan bazen ere azkenean 09:30ean abiatu ziren ibilaldia egitera. «Gehienbat Asteasuko inguruetan ibili ginen», azaldu du Iñaki Izagirrek. Guztira 39 zaldun bildu ziren ibilbidea egitera. «Hauen artean Orioko 9 urteko mutiko bat zegoen, eta Bizkaitik ere 10 urteko neskatxa bat etorri zen bere aitarenkin», azpimarratu du Izagirrek. Ibilaldi bukaeran «zaldi bat erori etain zen, baina ez zen ezer larria izan».

Hamaiketako egiteko tartea ere hartu zuten zaldunek, indarberri turistik ibilbideari jarraipena emateko. Goizetik izan zen festa giroari eutsiz bazkaldu zuten zaldunek.



«Lagun arteko» lasterketa izan zen; 9 zaldun aritu ziren eta Igor Castañares izan zen azkarrena. IDOIA LAHIDALGA

### Azkarrena, Igor Castañares

Arratsalde partean, lasterketa antolatuko zuten, «lagun arteko» izan zena. Guztira 9 partaide izan ziren, bi probatan banaturik. Lehen lasterketan bost zaldun aritu ziren eta bigarrengoan, berriz, lau. Proba bakoitzeko lehen hiru zaldunek finala jokatu zuten, sei lagunek, hor-tza.

Guztietan azkarrena, Igor Castañares izan zen. Aipatu behar da,

zaldi batzuk goizeko ibilaldian ere parte hartu zutela eta ondorioz, «ez zeuden hain fresko».

### «Jendea parte hartzera animatu nahi dut»

Iñaki Izagirrek egunaren aurretik «lan handia» dagoela aipatu du. «Jendea parte hartzera eta horrelako ekitaldi gehiago antolatzera animatu nahi dut», gaineratu du. Halere, «guztia oso ondo atera zen

eta balorazio positiboa egiten dugu». Eguraldiarekin ere zorte handia izan zuten, Santamaña jaietan lasterketa bertan behera utzi behar izan baitzuten.

Zaldunen artean hainbat ideia ere proposatu zituzten igandean. «Hilean behin irteeraren bat egitea pentsatu zuten eta Orendaingo lagunek ere herrian horrelako zerbitu antolatzea gustatuko zitzaielako aipatu zuten».

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Maialen Otamendi (Tolosa).**  
Gaur 9 urte. Aita, ama, Izadi eta Laionen partetik. Txintxo portatu!

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

SASOI BERRIETARAKO EZKATAK  
HITZAren arropa berria salgai

salmenta puntuak  
Tolosako DENAK taberna  
HITZAKo Tolosa eta Leitzako bulegoetan

arropak ikusgai: [www.hitza.info](http://www.hitza.info)

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

**hitza** info